

Zaldibar, 1976, martxoak 6

EUSKALTZAINDIAREN LEGEZKO NORTASUNA

Fr. L. Villasante

Euskaltzaindiko jaunak:

Jakinean zaudete, noski, zeren komunikabide sozial guztiek berria zabaldu baitute. Euskaltzaindiaren nortasuna edo legezko izatea bete-betean eta osoki aitortua eta onartua izan da. Espainiako Erregek dekretu berezi baten bidez gure elkar-goaren ezagutza hori egin du.

Urrats handia izan da. Uste dut Euskaltzaindiak hemen-dik aurrera beste larderia, itzal eta autoritate batez lan egin ahal izango duela euskararen alde. Beste indar bat eta erraztasun bat izango du, alegia, berari dagokion arloan eta eremuan ibiltzeko eta bere helburuak lortzeko.

Gaur da Euskaltzaindiak egiten duen lehenbiziko bilkura lege hori irten ondoren. Eta hemen, Zaldibar-ko udaletxean egin ere. Bidezko eta are beharrezko iruditu zaigu herriaren aurrean egingo den batzarrea baino lehen, Euskaltzaindikoe-kin bakarrik bilkura berezi hau egitea gertaera hunen xehetasunak emateko.

Ezin dut, ordea, gai hau bere luze-labur osoan eta aitzin-gibel guztietan hartu. Eman den pausu hunen arrazoiak eta historia laburra egingo dut xoilki.

Euskaltzaindia gure lau Diputazioek sortu eta eratu zuten, eta hoiak ematen zioten nortasunaz, babesaz eta laguntzaz bizi zen. Hasiberri hartan aski zen, nunbait, eta Euskaltzaindiak orduan ez zuen pentsatzen gehiago behar zuenik.

Baina urteak joan eta urteak etorri, gauzak asko aldatu dira Espainian, lege berriak atera dira, Diputazioek ez dituzte lehengo ahalak, Euskaltzaindiak ez zituen lehengo laguntzak hartzen, eta abar. Bere lege egoeraren egokitze, orairatze edo gaurkotze bat egin beharko zuela, geroago eta argiago ikusten genuen.

Hunekin ez dut esan nahi gure Diputazioek beren ume hau behin ere gaitzetsi dutenik. Ez. Beti ezagutu gaituzte,

haintzat hartu eta lagundu ere bai. Eta guk esker onik hobere-na dugu eta izango dugu beti euskal Diputazioen alderako-tzat.

Baina gauzen egoera ez zen iadanik lehengoa. Babesa, ezagutza eta laguntza ere ezin izan lehen bezalakoak. Geroa-go eta argiago ikusi dugu Madrilen aitortuak izatea beharrez-ko zela, ez han, bainan hemen aitortuak, haintzat hartuak, entzunak, babestuak eta lagunduak izan gaitezen. Horregatik esan dut geure egoeraren orairatze bat egin beharrean geun-dela. Eta hori da, hain zuzen, egin dena.

Ez da berehalakoan lortu. Joan-etorriak, jestioak eta abar egin behar izan dira eta tartean urteak igaro dira. Lege gizon eta euskaltzain oso den aldetik, Euskaltzaindiak Anto-nio Arrue jauna begiz jo zuen nortasuna irixteari buruz urrat-sak emateko; eta berak lortu zigun laguntzaile handi eta azkarra izan dugun Marcelino Oreja jauna. Bioi esker on berezia zor diegu.

Baina egin dezadan hauzi hunen historia labur bat.

Gure batzar-agiriei eta Euskera-n argitaraturik dauden dokumentuei begirada bat ematea aski da hortarako.

1969an, abenduko batzarrean, okei ez banaiz, aipatzen da lehen aldiz kontu hau. Istilu txar batean gertatu zen orduan Euskaltzaindia. Hauzitara jotzeko ere pronto zegoen. Baina norbaitek bota zuen batzarrean lege gizon baten esana: Legeak eskuan hartuz demonstra zezakeela berak Euskal-tzaindiak ez zuela "personalidad jurídica" rik. Beraz ez zuela hauzitara joaterik (Ikus *Euskera* 1971, 239 or.).

Euskaltzaindiak "personalidad jurídica" ez duelako berri hori laster barreiatu zen, eta hortaz probetxatu dira zenbait azken urteotan gure elkargoari gerra bizia egiteko, harriak jaurtitzeko eta abar, eta hori ez Madrilen, noski, hemen bai-zik. Legezko nortasunaren gaurkotzea, noraezekoa bihurtu zitzaigun, bada. Euskaltzaindia bezalako elkargoa batek, bere helburuen alde lan egiteko, behar du here nortasuna garbi aitortua eta ezagutua edukitzea. Baina lot nakion arazo hunen historiari.

1970eko urtarrileko batzarrean Euskaltzaindiko lege gizonei eskatzen zaie nortasunaren puntu hau azter dezaten (*Euskera* 1972, 226 or.).

1970eko martxokoan ere berriz ukitzen da kontu hau (*Euskera* 1972, 231). Euskaltzaindiko lege gizonei eta bereziki Arrue jaunari eskatzen zaie esan dezatela zer egin beharko den legezko nortasun osoa erdiesteko (*Euskera* 1972, 232).

Lege gizon hauek esaten dute noraezoko baldintza dela Euskaltzaindiaren beraren Arautegia berriztatu eta gaurko-tzea (*Euskera* 1972, 232).

1970eko maiatzeko batzarrean, egindako jectio batzuezmintzatzen da Arrue jauna (*Euskera* 1972, 235).

Artean Lekuona jauna zen euskaltzainburu. Bai nortasuna lortzeko eta bai Arautegia berriztatzeko ere, haren denboran eman ziren lehen pausoak.

Ni euskaltzainburu izendatu ninduteneko, kezka hoek eta lan hoiek hasiak ziren bada.

Gero berriz 1970eko azaroko batzarrean batzorde berezi bat izendatzen da Arautegia berriztatzeko. Batzorde hori jarri zeneko agirian hauxe esaten da: "Euskaltzaindiak legezko nortasun bat erdietsiko badu, nahi-ta-ez bere Araudia gaurkotua aurkeztu beharko du. Horregatik —eta besteak beste direla—, Araudiaren berritze eta gaurkotze horri premiatsuenetako puntua derizkiogu" (*Euskera* 1971, 127).

Ia bi urte igaro ziren Arautegiaren berritze eta onartze hunetan, baina azkenean Euskaltzaindiak burutu zuen lan hori. 1972ko apirileko batzarrean, Arautegia onartua eta birretsia izan ondoan, batzarreak eskubideak ematen dizkio Arautegi batzorde huni beroni jectioak egin ditzan legezko nortasun hori erdiesteko. Hartako agirian hitz hauek esaten dira: "Euskaltzaindia Institutio bat da, eta nahi dugu hala aitortua eta ezagutua izan dedin; legearen aurrean bere nortasuna aitor dakion, alegia. Uste dugu geroago eta beharrezkoago duela legezko ezagutza oso eta garbi baten jabe izatea, bere helburuen alde eskubide osoz eta efikaziaz lan egin ahal izateko. Ixilpean edo erdizkako legetasun batekin geroago eta gutiago egin ahal izango dugu" (*Euskera* 1972, 214-215).

Oraino beste lau urte beharko dira asmo guzti hauek zer-baitetara hel daitezen.

Soluzio bat erraza zen Euskaltzaindiak asoziazioen artean bere burua sartzea. Baina garbi ikusi genuen hori ez zela gure bidea. Zalditik astora jeixtea izango zen. Euskaltzaindia ez da

asoziazio bat, Institutuzio bat baizik. Lortzen zailago izango bazen ere, bere mailari eta izaerari dagokion bezalako nortasuna lortu behar zen.

Ez ditut bana-banaka kontatuko Madrilerara egin behar izan diren osterak: "Instituto de España", "Consejo Superior de Investigaciones Científicas" eta bereziki "Educación y Ciencia"ko Ministeriora. Hasieran ate joka ibili behar, eta zein atetan jo behar zen ere ez genekien zuzen.

Azkenean bideratu ziren gauzak. 1974eko ekainean, Marcelino Oreja jaunak lagundurik, Cruz Martínez Esteruelas ministroarekin egon ginen. Dokumentazio guztia presentatzeko esan zigun, eta hala egin genuen urte bereko urrian.

Ia urte eta erdi iragan da bitartean. Azkenean Ministro berriak —Carlos Robles Piquer jauna— deituak Euskaltzaindiko bost jaun joan ginen: Arrue, Satrustegi, Lizundia, San Martin eta ni (1976, otsailak 10). Egin genion geure proposamena, eta faborezki erabakia izango zela antz eman genion. Ministroak hauxe bakarrik jakin arazi zigun: Gure elkargoaren erdal izenean "Real" hitza ipini beharko zela.

Hurrengo astean berriro deituak izan ginen, legea presatzen laguntzeko. Oraingoan hiru joan ginen: Lizundia, San Martin eta ni, eta hiru egun egin behar izan ditugu Madrilen (otsailaren 16tik 18ra), behar diren xehetasunak, argibideak eta laguntzak geure aldetik eskeintzeko.

Dekretoan elkargoaren euskal izena, hau da, *Euskaltzaindia* ager zedila eskatu genuen, eta hala egin da. Berek, berriz, Arautegian aldaketa xume batzuk egitea eskatu ziguten, eta hau arrazoi ximple bategatik, hots: lege hunek oker aditurik edo jelsiarik sor ez zezan, Espainiako erregeak beste erresuma bateko lurretan aginpidea balu bezala. Nola aldaketa hoiiek arrazoizkoak ziruditen eta beste aldetik Arautegiaren mamiari ez zioten ezertan ere ukitzen, guk amore eman genuen (1). Eskatu digute, baita ere, liburuxka bat presta dezagun erdaraz eta euskaraz Euskaltzaindiaren historia laburra eginez eta lege hunen testua emanaz. Dena Ministerioak berak argitaratuko digu.

(1) Halaz guztiz, bada-ezpadan, Madrildik telefonoz deika ibili ginen, iritzi eske, Haritschelhar-i, Arrue-ri eta Satrustegi-ri.

Azkenean etorri da guztiok dakizutena: Erregek, Euskaltzaindiari nortasuna aitortzen zaion lege hori, eman duela.

Urrats handia izan dela uste dut, eta batez ere gerorako, ondorio on eta zorionsuak ekarriko dituen.

EUSKAL-IRAKASLE TITULUA EMATEKO EPAI-MAHAINA

L. Villasante

Jaunak:

Euskaltzaindiak gaur dituen arazo eta zereginik premiatuenetako bat da, besteak beste, euskal-irakasle tituluak ematea. Gaur diot. Bihar-etzi ez dakit.

Berez, bere izatez edo egitez, euskera-kontuak egoera normal batetan baleude, Euskaltzaindiak ez luke arazo horretan zer sarturik. Legearen aurrean euskeraren egoera ez dela gaur normala eta behar lukeen bezalakoa frogatzen hasi beharrik ez dago, ordea.

Eta bien bitartean, inori izatekotan, Euskaltzaindiari dagokio arazo hau beregain hartzea, eta hala egin ere du eta egiten ari da sortu zenez geroztik. Bera da Euskal-Herrian euskal-gauzen ardura izateko jarririk dagoen Institutuzio bakarra, Euskal-Herriko Diputazioek hortarako berariaz sortua, Euskal-Herria eta euskara bere osotasunean eta hedadura guztian hartzen duena, euskara begiratzea, lantzea eta ikertzea helburu bezala duena, Euskal-Herri eta euskalki guztieta-ko lankideez osatutako batasuna, etab.

Gure Arautegiaren lehen artikuluan j) letran, gure zereginen artean honako hau dator: "hartako titulu eta ageriak ematea" ("expedir los oportunos títulos y certificados").

Eta ez da ez hau oraingo arazoa. Lehen ere, gerra aurreko garaian, alegia, hala egiten zuen Euskaltzaindiak. Adibidez, Diputazioaren aginduz, hauzo-ikastoletan edo euskeraz jakitea haintzat hartzen zen eskoletan maisu izan nahi zuenak, euskeraz bazekiela Euskaltzaindiak jarritako tribunal baten